

## » KONTZERTUA

# Omenaldi entretenigarria



Montserrat Auzmendi del Solar

Datorren abuztuaren 25ean, Leonard Bernstein jaio zenetik 100 urte betetzen dira, eta XX. mendeko musika-kultura amerikarraren erreferente izugarri honi omenaldia egiteko, Arriaga Antzokiak kontzertu-espektakulu ikusgarri bat antolatu zuen. Nire ustez, figura honen kalitate eta talentu miresgarriak ez dira behar bezala goraipatzen, agian publikoak Bernstein lotzen duelako genero konkretu batekin, film musikalekin hain zuzen ere, kontutan hartu gabe konpositore honen produkzio oparo eta anitza. Horrexegatik iruditzen zait benetan txalogarria musikari honi dedikatzea Arriaga-ko aurtengo denboraldiaren azken saioa. *I hate music* izenburuarekin (konpositorearen ume-kanta sorta baten titulua, hain zuzen ere), musikariaren pasarte famatuak eta ez hain famatuak biltzen zituen saio atsegina eskaini ziguten.

Ez zen ohiko kontzertua izan. Bernsteinen pasarte eta abestiak naturaltasunez lotzen ziren bata bestearekin nolabaiteko *music-hall* giroan sarturik. Argi-efektuak eta bestelako apaingarriak ez ziren falta, osotasun kurioso eginez. Bakarlari pare bat izan genuen: Michal Friedlander piano jole israeldarra, oso eroso Bernsteinen musikarekin, eraginkorra une guztietan, eta gure Ainhoa Arteta, inoiz baino izarragoa. Izan ere, Artetak eraman zuen espektakuluaren pisu handiena. Dotoreki abestu zuen, baina ez zen izan bere aktuazio onena. Erraztasunez mugitu zen eszenatokian, nagusitasunez, *diva* bat bezala. Sinpatiaz

## *I hate music*

LEONARD BERNSTEIN.  
BILBAO ORKESTRA  
SINFONIKOA ETA KORAL  
ELKARTEA.


Zuzendaria: Karl-Heinz Steffens.

Bakarlariak: Ainhoa Arteta  
(sopranoa), Michal Friedlander  
(pianoa). Piano-laguntzailea:

Rubén Fdez. Agirre.

Arriaga Antzokia.

Ekainaren 23a.



ere bai. Artista gertua eta irribarretsua da, eta hori eskertzekoa da, bai. *West Side Story* obraren *I feel pretty* kantarekin hasi zen, nahiko irregularra. Baina gora joan zen tolosarra beste abesti batzuekin. *I hate music* adibidez, graziaz beterikoa atera zitzaion; *My name is Barbara* gustura entzun genuen; *Peter Pan* obratik ateratako *Dream with me* kanta oso adierazkorra iritsi zitzaigun. Baina *Somewhere* kantan, berriaz, ez zuen asmatu tentsioarekin. Hori bai, hobetu beharko luke bere ingelesaren ahoskatzea.

Bilboko Koralelkarateak momentu distiratsuak oparitu zizkigun. *Mass* obraren *Gloria in Excelsis* ederki interpretatu zuten, adibidez, erritmoz eta adorez. Bilbao Orkestra Sinfonikoaren lana, Karl-Heinz Steffensen batutapean, doia izan zen uneoro. ■

Leonard Bernstein musikagilea  
(AEBetako Lawrence,  
Massachusetts, 1918–  
New York, 1990).